

ANBOTOKO MARI

Anbotoko Mari euskal mitologiako jainkosa da. Beste izen batzuek ere hartzen ditu: Aralarko dama, Txindokiko dama, Aizkorriko dama... Mendi askotan egiten ditu egonaldiak baina bere ohiko bizilekua Anbotoko leize bat da, Mariaren koba.

Kondaira batek dioenez, bazen behin Patxi izeneko abeltzain gazte bat, Anboto mendi inguruan bizi zena. Goizean goiz esnatzen zen egunero, bere familiaren ardiak mendira eramane eta zaintzeko. Oso mutil bakartia zen, eta bere lagun bakarrak animaliak eta mendia ziren.

Arratsalde batean, ardiekin menditik jaistean, arkume bat falta zitzaioela ohartu zen. Gainerakoak kortan utzi eta arkume galduaren bila joan zen berriro mendira. Iluntzen hasi zuen, eta oraindik ez zegoen arkume txikiaren arrastorik. Halako batean, tximista eta trumoiak entzun zituen bera zegoen lekutik gertu, eta euri tanta bat jausi zitzaion sudurrera. Sekulako ekaitza zetorkion gainera! Patxi babesleku bila hasi zen, eta kobazulo handi bat ikusi zuen. Hara sartu eta lurrean eserit zen, ekaitza noiz amaituko zain. Hotz handia egiten zuen, eta oso bustita zegoen gainera. Dardarka ari zenez, belaunak besarkatu eta han geratu zen erdi lo.

Bat-batean kobazulotik zetorren zarata bat entzun zuen, eta begiak erdi ireki zituen, zer zen ikusteko. Bere aurrean emakume eder baten irudia ikusi zuen, besoetan Patxiaren arkumea zeramala. Mutila guztiz liluratuta geratu zen emakumearen edertasuna ikusita, eta ez zitzaion hitzik ateratzen. Emakumeak, arkumea Patxiaren ondoan utzi zuen, eta kobazuloaren sarrerara keinu egin zuen buruarekin. Patxi hara begiratu eta ekaitza igaro zela eta ilargiaren argiak bidea argitzen ziola ikusi zuen. Emakumeari eskerrak ematera biratu zen, baina hura desagertuta zegoen jada. Patxi etxera bueltatu zen, eta Anbotoko Mari ikusi zuela esan zion jende guztiari. Inork ez zion sinetsi ordea.

